# HOJA DE INSTRUCCIONES

# PRIMERA PARTE DEL PRIMER EJERCICIO

Lea atentamente estas instrucciones. Son importantes para el desarrollo del ejercicio

**NO ESCRIBA NADA HASTA QUE SE LE INDIQUE.**

- Durante la realización de las pruebas el DNI o NIE debe permanecer encima de la mesa en lugar visible. **No está permitido tener móviles encendidos – ni siquiera en modo avión -, aunque estén guardados. Tampoco cualquier elemento susceptible de ser utilizado como transmisor y/o receptor**. La detección de su existencia supone la inmediata expulsión de la persona infractora. Se advierte de la posibilidad de que sean usados sistemas de detección de emisiones radioeléctricas.
- En la instalación existe **un reloj situado en lugar visible.**
- Durante la realización de la prueba debe haber **silencio absoluto**. Cualquier conducta inadecuada o molesta para el resto de personas supondrá la expulsión del recinto.
- Agotado el tiempo para la realización del ejercicio, se procederá a recoger las HOJAS DE RESPUESTA. **Permanezca en su sitio hasta que se le avise**.
- **El incumplimiento de las instrucciones de inicio y/o fin del ejercicio supondrá la <u>no corrección de la prueba</u>.**

## PRIMERA PARTE del primer ejercicio

- Sobre la mesa, además de la presente hoja de instrucciones, deberá disponer de
  - una **<u>HOJA DE RESPUESTAS</u>** para realizar el ejercicio (<u>leer atentamente</u> en el reverso la forma de corrección de respuestas erróneas). Si le falta pídasela a un cuidador/a.
- La hoja de respuestas consta de dos ejemplares, uno de color blanco y otro de color amarillo. No separe las hojas hasta que el examen haya terminado. Una vez finalizado el ejercicio, doble por la línea de puntos y arranque la pestaña de la parte izquierda; separe las dos hojas y entregue únicamente la blanca, guardando en su poder la de color amarillo.
- Es muy importante que marque correctamente las casillas **<u>TAL Y COMO SE INDICA EN LAS INSTRUCCIONES DE LA PROPIA HOJA DE RESPUESTAS</u>**, es decir, **rellenando completamente la casilla**. No haga equis ni círculos, tampoco puntos o pequeñas marcas en las casillas ya que pueden ser leídas como opciones elegidas. <u>Las respuestas se marcarán con bolígrafo azul o negro evitando los de tipo gel.</u>
- Cuando se indique, rellene los datos de la cabecera de la hoja de respuestas: **nombre, apellidos, firma y DNI**. Deberá señalar su NAN/DNI con números y marcas. Si dispone de NIE deberá cumplimentar las casillas del recuadro “NAN/DNI” con su NIE sin letras y un “0” como primera cifra.
- Cuando se reparta el cuadernillo no olvide **indicar qué modelo de examen (A castellano o B Euskera)** le ha correspondido.
- Cada pregunta tiene **cuatro opciones** de respuesta, señalada con las letras a), b), c) y d). Únicamente hay una respuesta correcta por pregunta. Una vez leída la pregunta y las cuatro opciones de respuesta, deberá señalar en la hoja la que considere más adecuada.
- En el transcurso de la prueba, si lo desea, puede solicitar una nueva hoja, pero recuerde que **no dispondrá de tiempo añadido.**
- El examen constará de **<u>60 preguntas</u> (50 preguntas más 10 de reserva)**. Las 10 últimas preguntas son consideradas de reserva y únicamente se tendrán en cuenta si alguna de las 50 primeras es anulada. No obstante, usted debe intentar responder a las 60 preguntas. La duración de la prueba será de **<u>1 hora.</u>**
- Esta primera parte se valorará de **0,00 puntos a 24,00 puntos**. Cada **respuesta correcta se valorará con 1,00 punto** y cada **respuesta errónea se penalizará con -0,33 puntos**, de modo que la **máxima puntuación directa alcanzable será de 50,00 puntos, equivalentes a 24,00 puntos de puntuación final.** Las preguntas no contestadas y las respuestas dobles no tendrán penalización.

  Para anular cualquier respuesta siga las indicaciones contenidas al dorso de la hoja de respuestas.
- Si finaliza antes del tiempo marcado, separe la copia de la hoja de respuestas que quedará en su poder, levante la mano y entregue la copia blanca. Aunque haya finalizado el ejercicio **no podrá moverse del sitio.**
- Entre la primera y segunda prueba, se concederá un descanso de 20 minutos. Se podrá abandonar el aula.
- **<u>IMPORTANTE: Transcurridos los 20 minutos, deben volver al aula, dará comienzo la segunda parte del primer ejercicio y ningún/a aspirante podrá acceder al aula una vez que haya dado comienzo la segunda parte del primer ejercicio.</u>**

**JARRAIBIDEEN ORRIA**

**LEHENENGO ARIKETAREN LEHEN ZATIA**

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko

**EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.**

– Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANa edo AIZa, ondo ikusteko lekuan. **Ezin da sakelako telefonorik eduki piztuta (ezta hegaldi-moduan ere), gordeta eduki arren. Ezta transmisore edo hargailu gisa erabil daitekeen beste tresnarik ere.** Horrelakorik atzemanez gero, arau hau hautsi duen pertsona berehala kaleratuko dute. Emisio irrati-elektrikoak detektatzen dituzten sistemak erabiltzeko aukera dago.
– Instalazioan **erloju bat ikusgai** dago.
– Azterketak dirauen bitartean, **erabateko isiltasuna** egongo da. Norbaitek behar ez bezala jokatzen badu, edo beste hautagaiei endredoak eragiten badizkie, gelatik kanpora bidaliko da.
– Adierazitako ordua baino lehenago amaitzen baduzu azterketa, atera ezazu erantzunen orriko kopia horia, zeuretzat da-eta; altxatu eskua eta eman kopia zuria zaintzaileari. **Ariketa amaitu arren, ezin izango da lekutik mugitu.**
– **Ariketak hasteko edo amaitzeko jarraibideak ez badituzu betetzen, <u>ez zaizu azterketa zuzenduko</u>.**

**Lehenengo ariketaren LEHEN ZATIA**

– Mahai gainea, argibide-orri gain, honako hauek izan behar dituzu:
  - Ariketa egiteko **ERANTZUN-ORRI BAT** (<u>Irakurri arretaz</u> orriaren atzeko aldean, erantzunak zuzentzeko modua). Falta bazaizu, eskatu zaintzaileetako bati.
– Erantzun-orria bikoitza da: bata zuria da, eta bestea horia. Ez banatu orriok azterketa amaitu arte. Ariketa amaitu ondoren, ezkerreko aldeko puntu-ilaratik tolestu eta hegaletik tiratu eta banandu; orri zuria bakarrik entregatuko duzu, bestea, horia, zuretzat gorde.
– Ariketa irakurgailu optikoz zuzenduko da. Beraz, oso garrantzitsua da borobiltxoak ondo markatzea, **<u>ERANTZUN ORRIKO JARRAIBIDEETAN AZALTZEN DEN MODUAN</u>**, hau da, gune osoa bete eta ilundu behar da. Ez egin, bada, ez ixarik (x), ez biribilik. Puntu edo marka txikiak ere hautatutako erantzun bezala irakur daitezke. <u>Erantzunak boligrafo urdin edo beltzez markatuko dira, gel motakoak saihestuz.</u>
– Agintzen denean, bete itzazu erantzun-orriko buruan eskatutako datuak: **izena, abizenak, sinadura eta NAN** zenbakia. Azken hau idazteko, zenbakiak eta markak erabili behar dituzu. AIZa baduzu, “NAN/DNI” ataleko laukitxoetan zure AIZa letrarik gabe jarri behar duzu; lehenengo zifra “0” izan beharko da.
– Azterketa jasotzen duzunean, adierazi beharko duzu egokitu zaizun azterketa-**eredua: A (gazteleraz) edo B (euskaraz)**.
– Galdera bakoitzak **lau erantzun** ditu aukeran, a), b), c) eta d) letrekin. Erantzun zuzen bakarra dago galdera bakoitzeko. Galdera eta aukerako lau erantzunak irakurri ondoren, erantzun-orrian jarri behar duzu zein den erantzun zuzena.
– Azterketa egiten ari zaren bitartean, nahi baduzu, erantzunen beste orri bat eska dezakezu, baina gogoan izan **ez duzula denbora gehigarririk izango.**
– Azterketak <u>60 galdera</u> izango ditu **(50 galdera gehi erreserbako 10).** Azken 10 galderak ordezkoak dira, eta lehenengo 50 galderetakoren bat baliogabetzen denean bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, zuk 60 galderak erantzuten saiatu behar duzu. **Probaren iraupena <u>ordubetekoa</u> izango da.**
– 1. Zati hau **0,00 puntutik 24,00 puntura** bitarteko balioa emango zaio. **Erantzun zuzen bakoitza 1,00 punturekin baloratuko da**, eta **erantzun oker bakoitza -0,33 punturekin zigortuko da**; **beraz, zuzenean lor daitekeen gehieneko puntuazioa 50,00 puntukoa izango da, hau da, 24,00 puntuko azken puntuazioa**. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

  Edozein erantzun ezeztatzeko, jarraitu erantzun-orriaren atzealdean dauden jarraibideei.
– Denbora bukatzen denean, erantzun-orriak banatzeko ezkerreko aldeko puntu-ilaratik tolestu eta ebaki, zaintzaileari erantzun-orri zuria eman eta zuretzat gorde erantzun-orri horia. Azterketa amaitu ondoren **ezin izango da lekutik mugitu**, bestelakorik agindu arte.
– Lehenengo eta bigarren proben artean, 20 minutuko atsedenaldia emango da. Gelatik irten ahal izango da.
– **<u>GARRANTZITSUA: 20 minutu igaro ondoren, gelara itzuli beharko dute. Lehenengo ariketaren bigarren zatia hasiko da, eta izangai bat ere ezingo da ikasgelan sartu lehenengo ariketaren bigarren zatia hasi ondoren.</u>**

# HOJA DE INSTRUCCIONES

# SEGUNDA PARTE DEL PRIMER EJERCICIO

Lea atentamente estas instrucciones. Son importantes para el desarrollo del ejercicio

## NO ESCRIBA NADA HASTA QUE SE LE INDIQUE.

- Durante la realización de las pruebas el DNI o NIE debe permanecer encima de la mesa en lugar visible. **No está permitido tener móviles encendidos – ni siquiera en modo avión -, aunque estén guardados. Tampoco cualquier elemento susceptible de ser utilizado como transmisor y/o receptor**. La detección de su existencia supone la inmediata expulsión de la persona infractora. Se advierte de la posibilidad de que sean usados sistemas de detección de emisiones radioeléctricas
- En la instalación existe **un reloj situado en lugar visible.**
- Durante la realización de la prueba debe haber **silencio absoluto**. Cualquier conducta inadecuada o molesta para el resto de personas supondrá la expulsión del recinto.
- **En los últimos 15 minutos no se podrá abandonar el recinto** hasta la finalización del tiempo total otorgado.
- Agotado el tiempo para la realización del ejercicio, se procederá a recoger las HOJAS DE RESPUESTAS. **Permanezca en su sitio hasta que se le avise**.
- **El incumplimiento de las instrucciones de inicio y/o fin del ejercicio supondrá la no corrección de la prueba.**

## SEGUNDA PARTE del primer ejercicio

- Dispone de un tiempo máximo **de 3 horas** para realizar la prueba escrita.
- Sobre la mesa, además del DNI, útiles de escritura y esta hoja de instrucciones, deberá disponer de:
  - Un sobre grande
  - Un sobre pequeño
  - Una ficha para cumplimentar sus datos de identificación
  - Folios específicos facilitados por Bilbao Ekintza y
  - Relación del temario específico
- La corrección de esta prueba es **anónima**, por lo que **NO DEBERÁ CONSTAR NINGUNA IDENTIFICACIÓN PERSONAL EN LAS HOJAS DE EXAMEN.**

  NO FIRME NADA NI ESCRIBA NOMBRE Y APELLIDOS EN LOS SOBRES PEQUEÑO Y GRANDE.

  NO FIRME NADA NI ESCRIBA NOMBRE Y APELLIDOS EN LOS FOLIOS SELLADOS PARA LA REALIZAR LA PRUEBA.
- Escriba en la ficha de cartulina sus datos personales y la plaza a la que opta. **CUANDO EL TRIBUNAL SE LO INDIQUE**, firme la cartulina e introdúzcala en el sobre pequeño, cerrándolo con el adhesivo que contiene y métalo en el sobre grande.
- Numere por las dos caras los folios sellados en los que vaya escribiendo. **EN DICHOS FOLIOS NO DEBERÁ CONSTAR NI SU NOMBRE NI SU FIRMA.**
- Al desarrollar el ejercicio **deje suficiente margen en blanco en los bordes de las hojas** para evitar que se pierda información al fotocopiar su ejercicio para la corrección.
- Esta 2ª parte se valorará de **0,00 puntos a 16 puntos. Siendo necesario obtener un mínimo de 6,40 para superarlo.**

- **INMEDIATAMENTE ANTES DE COMENZAR ESTA PARTE, SE EXTRAERÁN AL AZAR SEIS (6) BOLAS DE LOS TEMAS DE LA PARTE ESPECÍFICA DEL TEMARIO. CADA ASPIRANTE DEBERÁ DESARROLLAR DOS DE LOS SEIS TEMAS, A SU ELECCIÓN.**

**MUY IMPORTANTE:**

- **Criterios de corrección de la 2ª parte del primer ejercicio**:
  - El desarrollo de cada uno de los temas elegidos del sorteo, **se valora por igual, con un máximo de 8,00 puntos**, de acuerdo con los siguientes criterios:
    1. Formación general universitaria: Se identifica con el conocimiento de la materia de objeto del tema escogido: **hasta 6 puntos.**
    2. Claridad, orden de las ideas y facilidad de exposición: Se identifica con la claridad completa, visión de conjunto y exposición ordenada de las ideas: **hasta 0,5 puntos.**
    3. Capacidad de síntesis: Capacidad de exponer una idea sistemáticamente, estableciendo relaciones entre los diferentes conceptos, presentando una idea global destacando sus partes más interesantes y reseñables: **hasta 0,75 puntos.**
    4. Aportación personal: directamente relacionada con el tema escogido **hasta 0,75 puntos.**

**JARRAIBIDEEN ORRIA**

**LEHENEGO ARIKETAREN BIGARREN ZATIA**

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko

**EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.**

- Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANa edo AIZa, ondo ikusteko lekuan. **Ezin da sakelako telefonorik eduki piztuta (ezta hegaldi-moduan ere), gordeta eduki arren. Ezta transmisore edo hargailu gisa erabil daitekeen beste tresnarik ere.** Horrelakorik atzemanez gero, arau hau hautsi duen pertsona berehala kaleratuko dute. Emisio irrati-elektrikoak detektatzen dituzten sistemak erabiltzeko aukera dago.
- Instalazioan **erloju bat ikusgai** dago.
- Azterketak dirauen bitartean, **erabateko isiltasuna** egongo da. Norbaitek behar ez bezala jokatzen badu, edo beste hautagaiei endredoak eragiten badizkie, gelatik kanpora bidaliko da.
- **Azken 15 minutuetan ezin izango da irten** emandako denbora osoa amaitu arte.
- Denbora bukatzen denean, erantzun-orriak jasoko dira. **Ez mugitu zure lekutik esan arte**.
- **Ariketak hasteko edo amaitzeko jarraibideak ez badituzu betetzen, <u>ez zaizu azterketa zuzenduko.</u>**

**Lehenengo ariketaren BIGARREN ZATIA**

- Idatzizko proba egiteko, gehienez, **<u>ordu 3ko</u>** denbora izango duzu.
- Mahai gainean, NANaz, idatz-tresnetaz eta orri honetaz aparte, **hurrengoak eduki ahal izango dituzu**:
    - gutunazal handi bat,
    - gutunazal txiki bat,
    - zure identifikazio datuak betetzeko fitxa bat
    - Bilbao Ekintzak erraztutako orri espezifikoak eta
    - Gaitegi espezifikoko zerrenda.

- Proba honen zuzenketa **anonimoa** da, hortaz, **EZ DA IDENTIFIKAZIO PERTSONALIK JASOTA GERATU BEHARKO AZTERKETA ORRIETAN.**

  EZ IDATZI IZEN-ABIZENAK ETA EZ SINATU EZER GUTUNAZAL TXIKI ETA HANDIAN.
  EZ IDATZI IZEN-ABIZENAK ETA EZ SINATU EZER PROBA EGITEKO ZIGILATUTAKO ORRIETAN.

- Kartulinazko fitxan zure datu pertsonalak eta hautatu duzun plaza idatz itzazu. **EPAIMAHAIAK HALA AGINTZEN DUENEAN** sina ezazu kartulina eta sar ezazu gutunazal txikian azken honek daukan itsasgarriarekin ixten. Gero sartu gutunazal txikia gutunazal handian.
- Jarri zenbakiak bi orrialdeetatik zigilatutako orrietan idatziz joan ahala. **ORRI HORIETAN EZ DA ZURE IZENA EZTA ZURE SINADURA JASOTA GERATU BEHARKO.**
- Ariketa garatzean**, utzi orrien ertzetan zuri nahikoa** zure zuzentzeko ariketa fotokopiatzean informaziorik gal ez dadin.
- Bigarren zati honek **0,00 puntutik 16 puntura** bitarteko balio izango du. **<u>Nahitaez 6,40 puntu lortu beharko dira gainditzeko.</u>**

- **<u>PROBA HAU HASI BAINO LEHEN, SEI (6) BOLA ATERAKO DIRA AUSAZ, GAI-ZERRENDAKO ZATI ESPEZIFIKOKO GAIEI BURUZ. IZANGAI BAKOITZAK BERE AUKERAKO SEI GAIETATIK BI GARATU BEHARKO DITU.</u>**

<u>OSO GARRANTZITSUA</u>:

- **Lehenengo ariketaren 2. Zatia zuzentzeko irizpideak**:
    - Zozketan hautatutako gai bakoitzaren garapena **modu berean baloratuko da, gehienez 8,00 punturekin**, honako irizpide hauen arabera:
      **1.** Unibertsitateko prestakuntza orokorra: Aukeratutako gaiari buruzko ezagutzarekin identifikatzen da: **6 puntu, gehienez.**
      **2.** Argitasuna, ideien ordena eta azaltzeko erraztasuna: Argitasun osoarekin, osotasunaren ikuspegiarekin eta ideien azalpen ordenatuarekin identifikatzen da: **0,5 puntu, gehienez.**
      **3.** Sintesi-gaitasuna: Ideia bat sistematikoki azaltzeko gaitasuna, kontzeptuen arteko erlazioak ezarriz, ideia global bat aurkeztuz eta bere zati interesgarri eta aipagarrienak nabarmenduz: **0,75 puntu, gehienez.**
      **4.** Ekarpen pertsonala: aukeratutako gaiarekin lotura zuzena duena: **0,75 puntu, gehienez.**